

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZPEITIKO UDALA

Azpeitiko HAPOko 18. Landeta H.E. hirigintza eremuaren iparraldeko Plan Berezia eta ingurumen-dokumentu estrategikoa.

Alkatetzaren 2023ko maiatzaren 5eko Ebazpenaren bidez, hasieraz onartu da Azpeitiko HAPOko Landeta 18 hirigintza-eremuko iparraldeko eremuaren hiri-antolamendurako Plan Berezia.

Plan Bereziaren helburua da Landeta eremuaren iparraldeko eremuaren antolamendu xehatua eta kudeaketa bultzatzea, 42.945 m² inguruko azalerari eraginez, eta eremuari eragiten dioten uholde-arazoei aurre egiteko beharrezko esku-hartzeak jasotzen ditu. Gainera, berroneratzeko proposamenak planteatzeko helburua izango du, hirigintza-kalitatea hobetzen laguntzeko eta etorkizunean area osoa berroneratzeko bultzatzeko.

Azpeitiko Udalak sustatu du Plan Berezia, eta Isuuru Arquitectos S.L. arkitektoek, Nekane Azarola Martinez abokatu urbanistak, Raaul Servet Martin geografoak, Elena Alonso Zapirain biologoak eta Laecor S.L. ingeniariak akustikoak osatutako talde teknikoak idatzi du. Planak bere baitan jaso du ingurumen-dokumentu estrategikoa.

Plan Berezia ezin izango da behin betiko onartu ingurumen-organismoak ingurumen-txosten estrategikoa eman ezean, eta ingurumen-ebaluazio estrategikoa sinplifikatuaren prozedura izapidetzaaren ondoriozko baldintzak jaso beharko dira.

Plan Bereziaren mugaketan mota guztietako onarpenak, bai menak eta lizentziak ematea etenda geratzen da, baldin eta aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea badakarte. Etenaldi hori urtebeteko epean mantenduko da, edota, hala badagokio, Plana behin betiko onartu arte, adierazitako epea baino lehenagokoa bada.

Horrenbestez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa den ekainaren 30ko 2/2006 Legearen 95. artikulok dioena jarraituz, jendaurreko erakustaldian jarriko da aipatutako espediente, Azpeitiko Udaleko Idazkaritzan, hogei eguneko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitzen den hurrengo egunetik hasita. Aipatutako epean aztertu eta egoki irizitako erreklamazio eta alegazioak aurkeztu ahal izango dira Udaleko Sarrera Erregistroan eta Azpeitiko Alkate-Lehendakariari zuzenduta. Era berean, elektronikoki aurkeztu ahal izango dira udalaren egoitza elektronikokoaren erregistroaren bidez eta baita Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako beste modu batean ere.

Dokumentu osoa, hasierako onarpenaren ebazpenarekin batera, Azpeitiko Udalaren web orriko iragarki-taulan ere egongo da ikusgai: www.azpeitia.eus, eta baita hirigintza sailean, planeamenduaren garapen atalean ere.

Azpeitia, 2023ko maiatzaren 9a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (3507)

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

Plan Especial y documento ambiental estratégico para la ordenación urbana de la zona norte del ámbito urbanístico A.U. 18 «Landeta» del PGOU de Azpeitia.

Por Resolución de Alcaldía de fecha 5 de mayo de 2023 se ha aprobado con carácter inicial el Plan Especial para la ordenación urbana de la zona norte del ámbito urbanístico A.U. 18 «Landeta» del PGOU de Azpeitia.

El Plan Especial tiene como objetivo impulsar la ordenación pormenorizada y gestión del ámbito de la zona norte del Área Landeta afectando a una superficie aproximada de 42.945 m², y recoge las intervenciones necesarias para hacer frente a los problemas de inundabilidad que afectan al ámbito. Además tendrá la finalidad de plantear propuestas de regeneración, que ayuden a mejorar la calidad urbanística e impulse una futura regeneración de la totalidad del área.

El Plan Especial ha sido promovido por el Ayuntamiento de Azpeitia y redactado el equipo técnico formado por los arquitectos Isuuru Arquitectos S.L., la abogada urbanista Nekane Azarola Martinez, el geógrafo Raaul Servet Martin, la bióloga Elena Alonso Zapirain y la ingeniería acústica Laecor S.L. El Plan Especial integra, además, el documento ambiental estratégico.

El Plan Especial no podrá ser aprobado con carácter definitivo sin la emisión del informe ambiental estratégico por parte del órgano ambiental, debiendo recogerse los condicionantes que resulten de la tramitación del procedimiento de Evaluación Ambiental Estratégica Simplificada.

Queda suspendido el otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en la delimitación del Plan Especial en las que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente. Esta suspensión se mantendrá en el plazo de un año y en su caso hasta la aprobación definitiva del Plan si precede al plazo señalado.

En consecuencia, y de conformidad con el artículo 95 de la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, el correspondiente documento se expone al público en la Secretaría de este Ayuntamiento de Azpeitia, durante el plazo de veinte días, a partir del día siguiente hábil al de la publicación del presente edicto en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, a fin de que puedan ser examinados y presentarse durante este periodo de información pública, las reclamaciones y alegaciones que se estimen procedentes, que deberán ser presentados en el Registro General de entradas de este Ayuntamiento, dirigidas a la Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento. De igual forma, podrán presentarse electrónicamente a través del registro en la sede electrónica del Ayuntamiento o en otra forma establecida la Ley de Procedimiento Administrativo Común.

El documento integro junto la Resolución de aprobación inicial estará expuesto en el Tablón de Anuncios de la página Web del Ayuntamiento de Azpeitia www.azpeitia.eus, en el departamento de Urbanismo –apartado de aprobación del planeamiento de desarrollo–.

Azpeitia, a 9 de mayo de 2023.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (3507)